

Presidenteentzako adierazpen komuna 2018ko osoko bilkura

Andorrako Printzerriko Atzerri ministroak, mugaz gaindiko lankidetzarako Andorrako erakundeko presidente gisa, eta Okzitaniako eta Akitania Berriko Eskualdeek zein Euskadi, Nafarroa, Katalunia eta Aragoiko Autonomi Elkartetako presidentek –Aragoikoa, Pirinioetako Lan Elkarteko (PLE) presidente gisa–, 2018ko azaroaren 13ko osoko bilkuran, honako adierazpen hau hitzartu dute:

1. Europar Batasuna bere historiako funtsezko une batean dago gaur egun, Erresuma Batua bertatik ateratzeko hitzarmenerako negoziatioengatik, bai eta Europako Mugaz Gaindiko Lankidetzaren etorkizuna baldintzatuko duten datorren Urte Anitzeko Finantza Esparruari buruzko eta 2020aren osteko kohesio-politikari buruzko negoziatioengatik ere. Mugarri handi baten aurrean gaude, halaber: Europako Parlamenturako hauteskundeak izango dira 2019ko maiatzean. Azkenik, migrazioaren, ekonomia zirkularraren eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren gaineko erronkei buruzko eztabaidak adierazgarriak eta biziak dira. Hori dela eta, berretsi nahi dugu Pirinioetako Lan Elkartea, eskualdeen arteko lankidetzarako esparru eraginkorra ez ezik, **Europar Batasuna eraikitzearen tresna parte-hartzaile eta arduradun** ere izatea nahi dugula.

Mugaz gaindiko proiektuak, Europaren ideia sustatzeaz gain, Europako etorkizunerako inbertsioa ere badira, Europar Batasunarekiko konfiantza eta grina berreskuratzen eta berrindartzen laguntzen baitute. Horretarako, baina, Europako kohesio-politikaren tresna finantzarioen laguntza ere jaso behar du PLEk. Azken urteotako eskualde-politikaren esparruan, mugaz gaindiko lankidetzak bultzatu da INTERREG programen bitartez, eta EBk lankidetzak hori aurrerantzean ere indar dezan eskatzen dugu. Azken batean, mugaldeko eskualdeen hazkunde ekonomikoa erraztu beharra dago, Europako ekonomia, gizarte eta lurraldearen kohesio-helburuak lortzen laguntzen baitu.

2. PLEko kideen iritziz, mugaz gaindiko lankidetzak zein horrek dakartzan proiektuak ikuspegi estrategiko amankomunaren barruan kokatu behar dira.

PLEk 36. Osoko Bilkura honetan onartutako Pirinioetako Estrategiak arazo nagusiei erantzun nahi die Pirinioetako eremuan, hala nola herritar guztiek zerbitzu publiko eskuragarriak izateari, klima-aldaketa arindu eta horretara egokitzeari zein garapen ekonomikoari.

Estrategia hori etapa garrantzitsua da, eta balio izango du 2018-2024 aldirako plangintza-esparru gisa, partzuergoak guztion helburuak lortzeko lotutako erronkei era eraginkorrago batez erantzun ahal izateko. Hala, mugaz gaindiko eremurako lehentasunak funtsezko erronka batzuen inguruan ardaztuta egongo dira, hala nola klima-aldaketara egokitzea, ingurumena eta biodibertsitatea babestea, ikerketa eta berrikuntza laguntzea, lurraldeen dinamizazio ekonomikoa, kalitatezko enplegua sortzea,

prestakuntza eta gizarteratzea eta natura- eta kultura-ondarea laguntzeko politikak bultzatzea, besteak beste.

Azkenik, Pirinioetako Estrategiak INTERREG Espainia-Frantzia-Andorra 2021-2027 programa diseinatzeko erreferentzia ere izan nahi du. Testuinguru horretan, PLEko presidentek pozik daude Pirinioetako Estrategia bat adostea lortu dutelako, PLE sortzeko orientazioekin bat etorri egin ere.

Osoko bilkura honetatik aurrera, PLEko presidentek hitzematzen dute bultzatu egingo dituztela Pirinioetako strategiaren jardun-esparruak, ekintza operatiboak zehazteko lanean aurrera egiteko. Pirinioetako Estrategia ekintza-plan bizi eta dinamikoa izango da, eta berrikusi eta egokitu ere ahalko da. Hiru ardatz estrategikoren inguruan egongo da egituraturik:

- **Ingurumena babestea eta klima-aldaketara egokitzea;**
- **Lurraldearen ekimenak eta erakargarritasuna sustatzea;**
- **Mugikortasuna, konektagarritasuna eta irisgarritasuna.**

Eta **Gobernamendua, kapitalizazioa eta komunikazioa** jorratzen dituen zeharkako ardatzak Europako eragin-talde bihurtu nahi du PLE, eta bultzatu egin nahi du lurralde-lankidetzaren erreferente iraunkor gisa duen eginkizuna.

3. PLEk, Europako asmo handiko proiektu baten zerbitzurako xedearekin bat etorri, eginkizun garrantzitsua bete nahi du estatu kideek eta Europako erakundeek 2020aren osteko kohesio-politikaren etorkizunari buruz hasi duten elkarrizketaren esparruan. Bide horretan, PLEk bere ekarpena egin nahi du etorkizuneko programen diseinuan, bai eta mugaz gaindiko lankidetzaren aldeko esparrua mantentzeko lanean ere. Eta helburu horrekin aurkeztu da **“Pirinioetako Lan Elkartearen Adierazpen Politikoa”, Europako Batzordeak 2021-2027 aldirako hurrengo Urte Anitzeko Finantza Esparruari (UAFE) eta kohesio-politikari buruz eginiko proposamenei erantzuteko.**

2020aren osteko kohesio-politikari buruzko proposamenei egin beharreko oharren artean, PLEk Europako Lurralde Lankidetzaren (ELL) garrantzia nabarmendu nahi du, eta atsekabez hartzen du kohesiorako eta nekazaritzako politika erkiderako iragarritako aurrekontu-murritzeta. Sinatzaileek oro har lurralde-lankidetzarako, eta zehazki mugaz gaindiko lankidetzarako, diru kopuru handiak mantentzea defendatzen dute. Azkenik, irmoki arbuatzen dute Europako lurralde-lankidetzarako programen diru-hornidurak kalkulatzeko metodoa aldatzeko Europako Batzordeak eginiko proposamena. Izan ere, metodo berri horren aplikazioak nabarmen gutxituko du hurrengo programaziorako diru-hornidura, eta desabantaila handia ekarriko digu biztanle-dentsitate handiagoa duten mugaz gaindiko beste eremu batzuen aldean.

PLEk Pirinioetako eremu batzuetan despopulazioa arazo larria dela nabarmendu du; 4 biztanle/km² baino gutxiago daude horrelako eremuetan, eta desoreka eta despopulazioa dira haien ezaugarri nagusiak, beste lurralde batzuen aldean.

4. Barnean hartzen duen eremu geografikotatik eta Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra izeneko Europako programa kudeatzeko agintaria izategatik (2007tik aurrera), PLE funtsezko solaskidea da Pirinioetako eremuan mugaz gaindiko lankidetzako politika landu, prestatu eta abian jartzeko. Hori horrela, PLEko kideetako presidentek pozik daude mugaz gaindiko programa horren

eraginkortasunarekin. Programa horri esker, 120 proiektu programatu dira; hots, orotara Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren 142 milioi bideratu zaizkie gure lurraldeko eragileei.

5. Halaber, PLEko presidenteeek pozik hartu dute Eskualdeen Europako Batzordeak 2018ko uztailaren 5ean onetsitako irizpen prospektiboa (*2020aren osteko klima-gobernamendua Europako eta munduko ikuspegitik: NBKAEHren COP24rako ekarpena*), honako hau nabarmentzen baitu: «*Klima-politika anbiziotsua kontuan hartzen duen Energiaren Batasun erresiliente baten helburuak hobeto lortuko dira Batasunean, estatuetan, eskualdeetan eta tokian-tokian ekintza koordinatua eginez, eta, tokiko eskalan, ikerketa, sentsibilizatzeko jarduerak eta energia hornitzeko irtenbide eta sistema eraginkorrak sustatuz ere*». Hori beharrezkoa da PLEko kideek aurrera egin dezaten Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko bidean.


Nazio Batuen 2030erako Agendaren Garapen Jasangarrirako 17 helburuek eta 169 jomugak bidea markatu behar dute, garapen jasangarria eta klima-aldaketarako egokitzapena aurrera eramateko. Hori dela eta, PLEk erronka global horretan bere ekarpena egiten du, *Klima-aldaketaren Pirinioetako eraginei, ahuleziei eta egokitzapenari buruzko Pirinioez harandiko txostenaren* bidez. KAPB2 proiektuaren barruan egin da txosten hori, Eskualde Garapenerako Europako Funtsak, POCTEFA 2014-2020ren bitartez, eta Espainiako Trantsizio Ekologikorako Ministeriora atxikitako Biodibertsitatea Fundazioaren 2016-2019ko laguntzek finantzaturik.

Ingurumen-arazoak direla eta, era horretako lankidetzak-ekimenak beharrezkoak direlakoan, adierazpen hau sinatuz, Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokiaren ekintzei eutsi ez ezik, horiek areagotu ere egingo dituztela hitzematen dute PLEko presidenteeek.

6. Azkenik, presidenteeek, adierazpen hau sinatuz, aho batez berresten dute mugaz gaindiko lankidetzan elkarrekin lanean jarraitzeko borondatea, etorkizuneko Europa laguntzeko, Europako gure eremuan mugaz gaindiko politikak garatu eta ezar daitezzen.

**Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Akitania Berriko Eskualde
Andorrako Erakundearen ordezkari Kontseiluaren ordezkari gisa
gisa**


Maria Ubach Font andrea



Mathieu Bergé jauna




**Aragoiko Gobernuaren ordezkari gisa
Francisco Javier Lambán Montañés
jauna**



**Kataluniako Gobernuaren ordezkari
gisa**

Natàlia Mas Guix andrea



**Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa
María Angeles Elorza Zubiria andrea**



**Okzitaniako Eskualde Kontseiluaren
ordezkari gisa**

Pascale Péraldi andrea



**Nafarroako Gobernuaren ordezkari
gisa**

Ana Ollo Hualde andrea

